





Kadagua ibaia Alonsotegin,
otsailean izandako euritean.
ARG. © LUIS JAUREGIALIZO/ARGAZKI PRESS.

OHIKO ESKU-HARTZEAK EMAITZA ONIK EMATEN EZ DUTELA IKUSITA,
BESTE BIDE BATZUK JORRATZEN DIHARDUTE IBAIEN KUDEATZAILEEK

UHOLDEAK

konponbide berriak betiko arazoari

OHANE LAKAR IBAÑEZ
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa





Jose Maria Sanz de Galdeano
URA Uraren Euskal Agentziako
Plangintzen eta lanen zuzendaria.
ARG.: © URA-URAREN EUSKAL AGENTZIA.



Joserra Díez
Biologian doktorea. EHUko
Ibai-ekologiako ikerketa-taldean
ibaien funtzionamendua
ikertzen du. ARG.: © JOSERRA DIEZ.

Donostiako Martutene auzoko Txomin-eneako bizilagunak beren etxeetatik atera dituzte, etxe horiek eraitsi egin behar baitituzte hartzen duten lur-eremua libre uzteko. Bi helburu beteko dira horrela: herritar horiek uholdeen eraginez behin eta berriz jasan izan dituzten kalteak saihestea, eta ibaiari uholde horietako bakoitzean eskatzen duen lurra itzultzea.

Lehentasunezko 30 proiektu ditu eskuartean URA Uraren Euskal Agentziak, dagoeneko urbanizatuta dauden eremuetan uholdeen arriskua txikitzeko lanak egiteko. Besteak beste, etxebizitzak eta industrialeak lekuz aldatzea dute aurreikusita. Asmo eta gastu handiko proiektuak dira eta helburua da "oreka bilatzea ingurumenaren zaintzaren eta pertsonen babesaren artean", dio José María Sanz de Galdeano URAko plangintzen eta lanen zuzendariak.

Izan ere, "hamarkadatan, baita mendeetan ere, urek hartzen dituzten eremuetan eraiki dituzte herrigune eta industriaguneak, eta horiek gobernatzeko eginkizuna jaso dugu oinordean. Orain, berriz, saiatzen gara urari ateratzeko bideak ematen, eta ibai-ertzak ez kaltetzen", dio URAko arduradunak.

Ezinezko zaie, ordea, beti modu horretan jokatzeari; "batzuetan lan gogor bat egitea beste aukerarik ez dugu. Gobela ibaian, adibidez, Ge-

txon, egiten ari garen esku-hartze gehienak bide horretatik doaz, ubide paralelo bat sortzen ari gara, ur handien garaian hori ere bete dadin. Orain, ordea, azkeneko fasean sartzeraz goaz, Errekagane kalean, herriaren erdi-erdian, eta hor ezingo dugu hormak handitu besterik egin; hau da, ibaiari eraso pixka bat handiagoa egin", dio Sanz de Galdeanok.

 **Hamarkadatan, baita mendeetan ere, urek hartzen dituzten eremuetan eraiki dituzte herrigune eta industriaguneak.**

Orain salbuespeneko neurritzat jotzen dituztenak, oraintsu arte ohiko esku-hartzeak ziren uholdeei aurre egiteko neurriak hartzeko orduan: hormen bidez ibaien ibilgua bideratzea, kanalizatzea, dragatzea eta ibaiak "garbitzea", hau da, bertako landaredia eta habitataren bestelako elementuak kentzea. "Irudimen gutxi izan dute urteetan ibaien kudeatzaileek", nabarmendu du Sanz de Galdeanok. Adibidez, kanalizazioei dagokienez, EAEn ibai-sareak 2.028 kilometro lineal ditu, eta, horietako % 10 kanalizatuta dago (Eusko Jaurlaritzaren 2005eko datuen arabera).



Arriskuaren aurrean, erantzun eraginkorra

Uholdeei lotutako alerta-sistemak Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzatik koordinatzen dituzte EAEn. Pedro Anitua zuzendariak azaldu duenez, "lane-ko taldea uholdeak gertatu baino 48 ordu lehenago jartzen da martxan, iragarpen meteorologikoak oinarri hartuta. Bi faktore hartzen ditugu kontuan: iragarrita dagoen euritea, eta lurraldea zer egoeratan dagoen, hau da, zer prezipitazio izan diren aurretik".

Informazio hori izanda, "egoera zaila iragar-tzen bada, larrialdi aurreko egoera jartzen dugu martxan; hau da, aldundiak, udalak, zerbitzuak eta abar jakinaren gainean jartzen ditugu, adi egon daitezen. Baina oraindik ez da ezer gertatu, gertakari unetik 48 ordura baikaude", dio Anituak. Horrekin batera, bi jarraipen-mekanis-

mori begira jartzen dira: "Batetik, Euskalmetek ibaietan jarrita dituen 45 estazioetan 10 minutu-tik behin emariaren informazioa jasotzen dugu, eta, bestetik, simulazioak egiteko URA agentzia-ren sistemari erreparatzen diogu, iragarrita dagoen euri-kantitatearekin ibaiak zer egoeratan egongo diren aurreikusteko".

Orduak aurrera egin ahala, iragarpenak zer mailaraino betetzen diren egiaztatuz doaz. "Iragarpenak ez dira gai esateko zenbat litro botako duen haran jakin batean; euria egin dezake haran batean, edo ondokoan. Bada, jarraipen-sistemak bidez haran jakin batean egoerak okerre-ra egiten duela ikusten badugu, baliabideak martxan jarri goaz: udalak jakinaren gainean jartzen ditugu beharrezko neurriak har ditzaten (ibaien ondoko autoak kendu, bizilagunak ohar-

tarazi...), unitate mugikorrek bidaltzen ditugu haranotara (suhiltzaileak, Ertzaintzaren salbamendu-unitateak, DYA, Gurutze Gorria eta abar), eta, batez ere, ibai horien etengabeko jarraipena egiten dugu, alerta-malla eta hartu beharreko neurriak ibaien unean uneko mailara egokituzko".

Bizilagunak eta interesatuak jakinaren gainean jartzeko, "bururatu zaizkigun bide guztiak erabiltzen ditugu —dio Anituak—: mezu elektronikoa bidaltzen dizkiegu izena emanda duten guztiei (une honetan, 950 hartzaile ditugu, norbanakoak, udalak, komunikabideak eta abar kontuan hartuta); alerta larri baldin badago, galnara, SMSak bidaltzen ditugu, eta udaletara deitzen dugu. Eta, horrez gain, Twitterren denbora errealean ematen dugu egoeraren berri, baita webgunean ere".



Oria ibaian, Itsasondon,
ibaia bideratzeko lanak.
ARG.: © JORGE GONZALEZ.

Neurri horiexek dira, hain zuzen, "ibaiek gora egiten duten bakoitzean eskatzen dituztenak, hasi alkateetatik, eta nekazarietaraino edo kaleko edozeinenganaino. Orokorrak bezain okerrak dira, ordea". Hala dio Alfredo Ollero Zaragozako Unibertsitateko geografia fisikoko irakasleak, urtarrilaren bukaeran Cuidando Ríos blogean argitaratutako iritzi-artikulu batean. "Komunikabideek, gainera, kaltetuen ikuspegia bakarrik ematen dute, eta inoiz gutxitan ematen dituzten argudio zientifikoak", salatzen du Ollero.

ONURAGARRI BAINO, KALTEGARRIAK

Esku-hartze tradizionalen helburua ubidearen sekzioa handitzea eta ibaiak lautzea izan ohi da, ur-bolumen handiagoa pasatu ahal izan dadin, gainezka egin gabe. "Ibaiak ubide soiltzat jotzen dituzte horrelakoak eskatzen dituztenek, bai eta beren etsaitzat ere", dio Ollero artikuluaren. Sanz de Galdeanok, ibaietan egin beharre-

ko lanak planifikatzen aritzen den neurrian, gertu-gertutik ezagutzen ditu eskakizun horiek, eta, bere ustez, "bizilagunek ez dute zertan ezagutu zer den komenigarriena. Haiek uholde-eremuetan bizi dira, eta gehiegitan ikusten dituzte beren etxeak, lantokiak eta familiak arriskuan. Bada, ur-goraldietan ikusi eta sentitutakoek agintzen dutena ez dator bat ingurumenari komeni zaionarekin".

Edonola ere, adituek argi dute horiek ez direla, oro har, neurri eraginkorrak uholdeen kudeaketan. "Lan horiek aldaketa handiak eragiten dituzte, eta, hala, arriskua txikitzen dela pentsarazten dute. Baina, askotan, eskatzen dituztenen kalterako besterik ez dira", azaldu du Joserra Diez ekologian doktoreak.

Getxoko Errekagane inguruko hormaren kasuan bezala, ibaiak eremu batean bideratzen edo kanalizatzen direnean, eremu horretan lor

daiteke uholdeen arazoari aurre egitea, hormen bidez handitu egiten delako ibilguaren altuera. Alabaina, Diezek nabarmendu duenez, bideratutako tarte horretatik behera handiagoa izan daiteke ur handiek duten eragina, "kanalizatutako zatian urak abiadura handiagoa hartzen duelako. Gainera, hormen artean konprimatuta baldin badago ibaia, urak lur azpira presio handiagoa egingo du, eta horrek eragiten du ibai-ibilgutik urrunago dauden eremuetan ur-azalera zeak egotea".

Ibaien goraldietatik babesteko hormei lotutako beste arazo bat da eskaintzen duten segurtasuna mugatua dela. Honela dio Sanz de Galdeanok: "Jendeak uste du horrela ez duela arrisku-

rik, eta horrela da hormak gai diren bitartean uholdeari eusteko. Urak maila hori gainditzera ino egiten badu gora, ordea, eragindako kaltea askoz handiagoa izango da". Besteak beste, hormak hor daudelako, kanpora ateratzen den ura ezin da ibaira itzuli, eta denbora luzeagoan egoten da istilduta urak hartutako eremua.

Dragatze eta garbitzeek, bestalde, askoz kalte handiagoa eragiten diote ekosistemari haien bidez lortzen den abantaila baino, eta dituzten albo-ondorioak ere larriak izan daitezke. Eta, gainera, adituak bat datoz esanez haien bidez ez dela inolako arazorik konpontzen: "ezer gutxirako balio dute; plazebo-efektua besterik ez dute", dio Diezek. Ollerok azaltzen duenez, "ur-

Urtarrilean izandako euriteen eraginez, Arga ibaia hainbat puntutan atera zen. Argazkian, Funes herriko baratzak urez gainezka. ARG.: © JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS.



goraldietan, aurretik garbitutako eremuetan pilatzen dira materialak. Hortaz, ibaiak garbitzea dirua alferrik botatzea da”.

Kasu eta une puntualetan, hala ere, onargarritzat jotzen dute horrelako garbiketak egitea, hala nola “zubiren baten eraginez materiala pilatu denean, edo ibaiak estutzen diren eremuren batean, edo oztoporen bat dagoenean”, aipatu du Sanz de Galdeanok. Horrelako garbiketak puntualak egiteko, iaz 3 milioi euroko partida izan zuten EAE osorako.

Dragatze eta garbitze integralak egiten direnean, berriz, ibaiari ez zaio zaborra kentzen, sedimentuak, landaredi bizia eta enborrak baizik;

“hau da, ibaiko biodibertsitatea suntsitzen da, zuzenean eta zeharka; errulekuak kentzen dira... izugarritzko kaltea eragiten zaie ibaiei”, nabarmendu du Diezek.



*Dragatze eta garbitzeek,
askoz kalte handiagoa eragiten
diote ekosistemari haien bidez
lortzen den abantaila baino.*

Biodibertsitatean eragindako kalteaz gain, dragaketan ondorioz aurreikusi gabeko kalteak ere izan ditzakete ibai-eremuek eta hari lotutako azpiegiturek, Diezek zehaztu duenez: “sedimentua eta enborrak kentzean, urak ibai-hondoa higatzen du, eta horrek hainbat ondorio ditu, hala nola maila freatikoa jaistea, eta hondoa ezegonkortzea. Halaber, zubiak desegonkortzera irits daitezke, urak, azpijana eginez, zubien zapatak airean uzten baditu, dimentsionatu zirenean ez zelako kontuan izan ibaiaren higadura halakoa izatea. Gauza bera gerta da-kieke ibai-ertzei eusteko sortutako harri-lubetei, arrazoi berarengatik”.



Teknologiak aurrera, beldurrak atzera

“Historikoki, ibalei beldur handia izan zaie, eta oso kontuan izaten zuten hori herri-guneak eraikitzeke”, dio Joserra Diez ekologoak. Hain zuzen, “uholdeetan argi gelditzen da hori, normalean ura ez baita iristen eraikin zaharretaraino”. Ibaien ertzak baratzak eta soroak jartzeko erabiltzen ziren antzina, oso eremu emankorrak baitira, uholdeetan ongarritu egiten direlako, besteak beste.

XV. mendean hasi ziren ibaien ondoan lehenengo eraikinak egiten; “burdinolak izan ziren lehenengoak —dio Diezek—, uraren energiaz baliatzen baitziren”. Gero, XVIII. mendean, burdinola horietako asko errota bilakatu ziren, eta berri asko eraiki ziren, orduan hasi baitzen artoa hedatzen, eta horri lotuta izugarri handitu baitzen baserrietako populazioa. Azpiegi-

tura jakin horiez aparte, ordea, “uholde-arriskuko lekuetan ez eraikitzeke erregulazioak egon izan dira”, nabarmendu du Diezek.

Asmamenak eta teknologiak aurrera egin ahala, berriz, “gero eta uholde-esparru gehiago eraldatu eta okupatu dira. Urtegiek zerikusi handia dute horretan, erregulazioaren ondorioz behealdeetan segurtasun-sentsazio faltua sortu baita”, zehaztu du ekologoak. Oro har, 1950eko hamarkadatik aurrera hasi zen ibai-ertzen okupazioa.

Diezen ustez, 1983. urteko uholdeak “inflexio-puntu handi bat izan ziren. Orduan hasi ziren administrazioak uholde-mapak eraikitzen, eta arriskuaren kudeaketa bere horretan planteatzen”.





Zadorra ibaia aterata La Puebla de Arganzonen, urtarrilean. ARG.: JUANAN RUIZ/ARGAZKI PRESS.

IBAI-INGURUKO AZPIEGITURAK KALTEGARRI

Ibai-ibilguen inguruan sortzen diren azpiegi-
turek uholdeak izateko arriskua handitzea era-
giten dute askotan. Esate baterako, ibaietatik
hurbil errepideak, aparkalekuak edo bestelako
azpiegiturak sortzeko eremuak asfaltatzen di-
renean, iragazgaitz bihurtzen dira horiek guz-
tiak. Horren ondorioz, hor botatzen duen euria
askoz azkarrago iristen da ibaietara.

Zubiek ere badute zeresana uholde-eragile gisa
kasu askotan. Izan ere, hainbatetan gertatu da
zubi jakin baten egitura aldatzea, eta horrekin ba-
tera desagertzea inguru horretan behin eta
berri izan ohi zituzten uholdeak. Diezen lantal-
deak horixe ikusi zuen Nerbioi ibaian Mercabil-
bao inguruan egindako errestaurazio-proiektuan:
"azterketa hidraulikoan argi ikusi genuen 500 m
beherago dagoen zubi batek eremu horretan ger-
tatzen zen uholdea handitu egiten zuela".

 Zubi jakin baten egitura
aldatzean, inguruko uholde-
arazoak desagertu dira
hainbatetan.

Zubien egitura aldatzeak zubia bera aldatzea
dakar halabeharrez, eta, hortaz, Sanz de Gal-
deanok gogoratu duenez, batzuetan "ezin iza-
ten dugu horrelakorik egin, zubiak erabat
babestuta daudelako, beren ondare-balioaren-
gatik. Askotan gertatu zaigu zubi bat aldatzeko
proposamena egitea, eta horregatik ezezkoa ja-
sotzea". Orduan, "buruari eragin behar izaten
diogu berriro, pertsonak, ingurumena, eta, ho-
rrelakoetan, baita ondarea ere, babesteko".

URTEGIEN BI AURPEGIAK

Uholdeen kudeaketan garrantzia handia duten
beste azpiegitura batzuk urtegiak dira. Ura bil-
tzeko duten ahalmenarengatik, erpin askoko
elementuak dira. Duten efektu positiboa da ur-
goraldien goreneko mailak gelditu egiten dituz-
tela, eta, hala, urtegietatik beherako eremuetan
ez dute goraldirik izaten. Eredugarritzat jotzen
du Sanz de Galdeanok urtarrileko euriteetan
Zadorra ibaian egin zuten kudeaketa: "Ibaiak
300 m³/s-ko emaria zuen, eta urtegietan atxiki
zen urari esker, 50 m³/s bakarrik isurtzen zen
presatik behera. Kudeaketa benetan bikaina
izan zen".

Kudeaketa horrek arriskua ere badu, dena den. Zadorran bertan kalte handiak izan ziren 2003an, urtegien kudeaketa ezegokiaren eraginez. "Une horretan inguruko ibai guztien maila oso handia zen, eta behar baino gehiago itxaroten zen ura askatzen hasteko, arauak hala ezarrita zeudelako (lehentasun handiena ura biltzea zelako). Bada, kalteak oso handiak izan ziren, askatzen hasi zirenean, ur asko askatu behar izan zelako batera", gogoratu du Sanz de Galdeanok.

2003ko gertaera hark zer ikasia eman zien urtegien kudeatzaileei eta zegokien administrazioei. "Gaur egun, zehatz definituta dugu, eta garai hartakoekin zerikusirik ez duten irizpideen arabera, zer unetan hasi behar dugun ura askatzen, eta zer emarekin. Eta, hala ere, arduratzeko moduko iragarpen meteorologikoak daudenean, ez diegu kurba horiei jarraitzen, eta lehenago hasten gara hustutzen", dio URAko kudeatzaileak.

Urtegiek urari eusteko duten gaitasunari lotuta, Sanz de Galdeanok ohartarazi du txanponaren beste aldea ere badagoela: "Urtegi bat erakitzeagatik eremu batzuek utzi egiten diote maiz ur azpian gelditzeari. Bada, eremu horiek okupatzeko baimena ematen bada, eta uneren

➤ *Urtegiekin, segurtasun-sentsazio faltsu bat sortzen da, eta kasu larrietan hondamena ekar lezake.*

batean, oso uholde handia datorrelako, urtegia ez bada gai ur horri eusteko, eragin daitekeen kaltea oso larria izan daiteke. Hau da, segurtasun-sentsazio faltsu bat sortzen da, eta kasu larrietan hondamena ekar lezake".

Martutene auzoko bizilagun bat etxetik ura ateratzen, 2011ko azaroan izandako uholdeetan.
ARG.: © JON URBE/ARGAZKI PRESS.



 *Jokabideak ez dira zuritik beltzera aldatu orain dela 10-15 urte egiten zirenekiko, baina ari dira aldatzen.*

LURRALDE-ANTOLAKETAN ALDAKETAK

Zadorraren adibideak erakusten duen bezala, ibaien kudeatzaileak ari dira beren jarduna aldatzen. Faktore askok bultzatu dute hori; besteak beste, aurreko esperientzietatik ikasitakoek, ingurumena beste ikuspegi batetik ikusten zuten teknikariak sartu izanak, eta urari buruzko araudiak indarrean sartu izanak, hala nola Europako Uraren Esparru Zuzentaraua. "Ez dut uste zuritik beltzera aldatu direnik jokabideak orain dela 10-15 urte egiten zirenekiko, baina aldatzen ari dira. Eta gizartea, oro har, kezkatuago dago ingurumenarekiko", dio Sanz de Galdeanok.

Aldaketa horren beste adierazle bat lurralde-antolaketa da. URA Agentziako Sanz de Galdeano honela mintzatu da: "Ibaiari leku gehiago ematen hasi garenetik, ikusi dugu zenbait tokitan kendu beharra dagoela han eraikitakoa; hortik datoz aurreikusitako lehentasunezko 30 proiektuak. Gainera, onartzeaz dagoen Plan Hidrologikoa (EAEko barne-arroetarako) oso zorroztza da alderdi horretan. Haren arabera, ezin da eraiki uholdeetan urak hartzeko arisku handiko eremuetan (lehentasunezko fluxu-gune esaten zaie). Eta ez da eraikitzeke baime-nik emango, nahiz eta herri jakin batean handitzeko aukera bakarra hori izan. Etxe honetan, behintzat, oso argi dugu hori. Noski, beti ez da erraza, udalek zer esan handia dutelako, eta koordinazio falta egon daitekeelako, baina horretan ere asko egin da aurrera".

Joserra Diez ekologoaren ustez ere aurrera egin da lurralde-antolaketa gaian: "Orain dela urte batzuk, proiektu askotan eta askotan, lehentasunezko fluxu-guneetan eta haien ondoko lurretan eraiki ahal izateko, bete-lanen eta harri-lubeten bidez lurzorua maila altxatzen zuten. Hala, ofizialki ur-goraldietan urak hartuko lukeen mailatik gora dagoenez lurzorua, ez dute izan eraikitzeke arazorik. Esango nuke industrialde asko horrela eraikita daudela ibaien ertzean".

Azkeneko urteetako aldaketaren arrazoiaren artean, Sanz de Galdeanok aipatutakoei beste bat gehitu die Diezek: "krisia izugarri laguntzen ari da. Ezagutzen ditut krisiaren eraginez bertan behera gelditutako planifikazioak, uholde-eremuen gainean babes ofizialeko etxebizitzak egiteko, adibidez".

Krisiak, dena den, ez ditu plan guztiak gelditu, eta behar ez den lekuetan eraikitzeke proiektuak badaude oraindik. Diezek duela hilabete

gutxiko beste adibide esanguratsu bat ekarri du: "2012ko uztaillean jo zuen ilegaltzat Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Aiegin, Ondarrun, 480 etxebizitza eraikitzeke plana. Izan ere, plan horrek berekin zekarren Artibai estuarioaren eremu handi bat urbanizatzea, eta, hala, babesgunea mehartzea eta hezegunek uholdeen efektuak biguntzeko berez duten gaitasuna galtzea. Horrek erakusten digu asko dugula oraindik ikasteko".



Horri lotuta, Diezek gaineratu du udal txikietan gertatzen direla esku-hartze eta lan bortitzenak, "alor teknikoan aholkularitza txikiagoa dutelako, eta, azken batean, haiek baitute eskumena esateko zer erabilera eman lurrari. Hor hasten da arazoa".

Hain zuzen, oraindik okupatu gabe dauden eremuak ez okupatzea da, Sanz de Galdeanoren ustez, eman beharreko lehenengo urratsa uhol-

deen kudeaketa eraginkorra izan dadin: "Ez badiogu uzten egoerari okerrera egiten, gutxiago inbertitu beharko dugu gerora ingurumena leheneratzen, bai eta pertsonak babesten ere, eremu seguruetan egongo direlako. Hau da, epe motzera baino urrunago begiratu behar dugu, eta uholdeekin bizitzen ikasi behar dugu. Izan ere, bizi garen inguruan, izan, beti izango ditugu uholdeak". ●

Zadorra ibaiak gainezka egitean eragindako uholdea Trespuentes herrian. 2013ko urtarila.

ARG.: © JUANAN RUIZ/ARGAZKI PRESS.





DE ALERTA EN ALERTA >

CONCHA LAGO
DONOSTIA

ALERTAS naranjas, nieve, granizo, lluvias persistentes, vientos, y un rayo de sol... llevamos semanas con un ojo en el cielo y el otro en la información del tiempo como si todas las borrascas desembarcaran directamente en Euskadi. Cuando los periodos vacacionales están a la vuelta de la esquina, las previsiones meteorológicas son el santo y seña de las conversaciones y parece que hubiéramos comenzado un curso acelerado de Mariano Medina. Las audiencias de la tele se disparan y todo el mundo se queda embobado mirando mapas e isobaras.

¿Por qué estamos tan pendientes de la información meteorológica? "El tiempo ha adquirido mucho protagonismo en la tele porque es un producto que funciona. Todo el mundo necesita hacer planes y no digamos ya los empresarios turísticos. Aunque yo creo que un espacio de más de siete u ocho minutos es excesivo. Pero lo que resulta evidente es que tiene millones de seguidores", dice Mario Picazo, tan consciente del fenómeno de frentes y anticiclones que acaba de estrenar una web con comunicaciones personalizadas para las fechas y lugares en los que se desarrollan acontecimientos de interés.

"Va a hacer malo, lo han dicho en la tele, mejor nos quedamos en casa. Esta es una frase que el sector del turismo teme. Tuvimos un encuentro en Formigal con hosteleros de la zona y nos confesaron que ellos preferirían que no existiésemos", cuenta Jacob Petrus, el meteorólogo de *Telemadrid*, quien explica además que reciben quejas, "pero nunca presiones".

Saber si va a hacer frío o calor se ha convertido en una herramienta imprescindible para la economía y el ocio, y el espacio meteorológico de *TVE* es un clásico de la historia audiovisual en el Estado. Cada vez se viaja más, pero como

el tiempo libre es más escaso, las páginas turísticas incluyen siempre un apartado cargado de símbolos con soles y nubes. La tecnología ha traído nuevas fuentes de información. Pero no hablamos de *Weather* o *Meteoalarm*, una red europea de alertas meteorológicas, sino de los propios espectadores. Para Ana Urrutia, presentadora del *Eguraldia* en *ETB*, la colaboración de los espectadores es vital. "La audiencia es nuestra ventana. Hemos conseguido un *feedback* muy importante con el público que colabora con nosotros a través de las nuevas tecnologías. Ellos son estaciones humanas en determi-

El tiempo nos trae locos

LAS ALERTAS METEOROLÓGICAS Y LA PROXIMIDAD DE PERIODOS VACACIONALES DISPARAN LAS AUDIENCIAS EN TELEVISIÓN Y EL INTERÉS SOCIAL POR CONOCER LA INFORMACIÓN DEL TIEMPO



La sociedad acude a los 'hombres del tiempo' como a un oráculo a pesar de su mala fama

"Si no se quejan los hosteleros, se quejan los clientes", dice Roberto Brasero, de 'Antena 3'

nados lugares y nos aportan datos de viento, de temperatura... una riqueza que podemos luego contar y que nos ayuda a ser más precisos", señala Urrutia.

Luchando contra los elementos, los populares *hombres del tiempo* cargan con la pesada losa del error y la inexactitud. Sin embargo, llegado un puente o unas vacaciones, son consultados como un oráculo. "Los *hombres del tiempo* no somos tan malos. Lo que ocurre es que todos queremos escuchar la tempe-ri- el tiempo atmosférico- en nuestro pueblo, y si puede ser, en nuestro jardín. Y eso es imposible. Los medios ofrecen la información

meteorológica a granel, no pueden personalizarla. Se emplea menos de un minuto en repasar el pronóstico para Euskadi o Extremadura, cuando cada una de estas comunidades contiene cientos de microclimas para los cuales la predicción no será válida", dice el cazador de tormentas Emilio Rey.

"NO SE PUEDE PRECISAR"
Maestrillos y librillos

Los equipos del tiempo basan sus predicciones en diferentes modelos de previsión, una suerte de mapas que se elaboran por ordenador, con los datos de miles de estaciones meteorológicas y una gran cantidad de variables. Cada maestrillo tiene su librillo y cada hombre del tiempo su modelo de previsión. "Uno de los trabajos de los hombres del tiempo es diferenciar y escoger qué modelo se adapta mejor a la zona sobre la que quieres hacer una previsión. Hay modelos que se adaptan mejor a determinadas condiciones meteorológicas o a determinados momentos del año", explica Jacob Petrus.

Ante esto, solo queda hacer la información del tiempo con rigor, porque, como cuenta Roberto Brasero, "cuando terminan las vacaciones, o bien se quejan los hosteleros o los clientes". El hombre del tiempo de *Antena 3* explica que "a veces los errores en realidad son faltas de concreción o precisión, por lo mucho que tenemos que condensar la información".

Quizá por eso, Martín Barreiro, el *hombre del tiempo* en *La 1* los fines de semana, cree que nunca llueve a gusto de todos. "Por ejemplo, en un mapa de España solo caben un par de símbolos en Euskadi, y poco, por ejemplo, que esté lloviendo en la costa y que en el interior haga un tiempo de lo más agradable. Por eso, si se requiere una información más detallada conviene buscar en otros formatos: la tele autonómica, o la información territorial. Yo apuesto por un tiempo más multidisciplinar, que combine espacios largos y cortos para explicar bien lo que sucede", indica.

Una pareja, ayer en
La Zurriola, en
Donostia, ROSO EFE



«O traes el mar y lo tiras encima o se propaga sin remedio»

Un técnico de Emergencias y un bombero relatan el siniestro desde dentro

AINHOA DE LAS HERAS

aheras@elcorreo.com



BILBAO. «Echamos agua fría por el tejado y sale por el portal hirviendo, del calor que ha cogido la estructura». Los Bomberos se afanaban ayer en enfriar las brasas para evitar que las llamas se reavivaran. Sesenta profesionales de los ocho parques de Bizkaia (Gernika, Urioste, Basauri, Iurreta, Markina, Artaza y Balmaseda, según la Diputación, más un equipo de apoyo del de Bilbao) se enfrentaron ayer al «incendio urbano más

fuerte de los últimos 15 años» ocurrido en el territorio. «Se han juntado la noche, el viento y el calor», resumía Mikel Gil, el veterano cabo conductor desplazado desde la capital vizcaína con un «brazo articulado» y otros dos compañeros.

Según los primeros indicios, el fuego pudo declararse en un edificio deshabitado en cuyos bajos se ubica el bar Athletic, en la calle Nardiz tar Jon, en pleno casco antiguo de Bermeo, por lo que la alarma saltó mucho más tarde que si hubiera habido vecinos. Se propagó rápidamente por la estructura de madera y luego saltó de un tejado a otro empujado por el viento sur-suroeste que sopló con fuerza durante toda la noche. «Ha habido rachas máximas de

50 kilómetros por hora y el aire era seco, con solo un 50% de humedad, por lo que el tiro era mucho más rápido», apunta Gaizka Etxabe, uno de los técnicos de Atención de Emergencias del Gobierno vasco que coordinó el dispositivo.

Efecto «chimenea»

«O traes el mar entre las manos y lo tiras encima o la propagación es segura», lamentaba Mikel Gil, bombero desde hace 30 años. El primer parque en llegar al lugar fue el de Gernika, el más cercano, a las 4.10 horas. «Este era el incendio que temíamos desde hace tiempo, era preocupante y al final ha pasado; casas antiguas y adosadas, estructura de madera...», confiesa un bombero fo-

ral. Las mangueras arrojaron «miles y miles de litros de agua» primero sobre las lenguas de fuego y luego a los rescoldos. El viento y las calles estrechas actuaron a modo de «chimenea». Estaba previsto que los miembros del servicio de extinción permanecieran en el lugar toda la noche para evitar que se desatara un nuevo foco.

«Este era el incendio que temíamos desde hace tiempo, era preocupante y al final ha pasado»

Tres bomberos, un ertzaina y un policía local de los que asistieron a la catástrofe sufrieron heridas leves. Los primeros tenían «quemaduras en los ojos, fruto de las partículas tóxicas que salen con el humo».


Hidrantes

El incendio provocó el colapso de dos edificios, otros dos quedaron huecos por dentro y tres más afectados, «sin tejado y quemados, no se sabe si serán recuperables», aclaraba Gil. «En total han colapsado cinco portales», añade Etxabe. Otros inmuebles, entre ellos el Ayuntamiento, también fueron alcanzados por el fuego. Y entre el bloque donde se originaron las llamas y la casa consistorial, habrá «unos 50 metros».

El panorama era desolador. Edificios de tres y cuatro alturas reducidos a escombros, a esqueletos humeantes. En momentos como ayer es cuando más se valora el trabajo de los bomberos y del resto de los servicios de emergencia, «cuando se nos necesita y cuando hay que echar el resto», subrayaba Gil. Ambos coinciden en que lo peor es «el drama humano: el montón de familias que quedan en la calle, que lo han perdido todo, su vivienda, sus documentos y su ropa y que tardarán mucho tiempo en recuperarse de un golpe así», se dolía Mikel Gil.

«25 familias realojadas, unas 70 personas de 11 portales, cinco de ellos siniestro total», señalaba Gaizka Etxabe. «Esto es una gran desgracia para un pueblo como Bermeo». Con el visto bueno de los Bomberos, algunos damnificados pudieron acceder a sus viviendas semidestruidas en busca de documentación. Entre ellos figuraba un voluntario de Protección Civil del Ayuntamiento de Bermeo que había perdido la casa y que estuvo todo el día trabajando para ayudar a sus vecinos.

¿Qué habría pasado si en lugar de calles peatonalizadas, el casco antiguo hubiera estado plagado de coches estacionados como antaño? Esta vez los Bomberos accedieron hasta el incendio sin obstáculos. Otro dato a favor es que Bermeo «está bien dotado de hidrantes» y no faltó el agua. Estaba previsto que los perros de la Sección Canina de la Ertzaintza buscaran posibles víctimas atrapadas entre los escombros, pero el calor impidió el acceso, que se pospone hasta hoy. «Creemos que no hay nadie».



FOTOS: MAIKA SALGUERO Y FERNANDO GÓMEZ



Un bombero se enfrenta al pavoroso incendio, que no tardó en propagarse.



El Consistorio ayudará a los vecinos que han quedado en la calle.

Arrancan las primeras inspecciones técnicas

Una vez que los bomberos lograron sofocar las llamas, los servicios técnicos municipales comenzaron la primera ronda de inspecciones para verificar el estado de los edificios más afectados. Su principal objetivo ha sido adoptar las medidas de urgencia necesarias para garantizar la seguridad de las estructuras de los bloques dañados. Posteriormente se fijará el plan de derribo de los inmuebles con más destrozos y el área de Urbanismo analizará las propuestas realizadas por arquitectos y empresas constructoras de la villa «que se han prestado de manera voluntaria para llevar a cabo esa labor», apuntaron.



En los operativos de búsqueda y rescate suelen participar diferentes unidades de la Ertzaintza, incluida la canina. :: e.e.

SOS Deiak coordina cinco operativos de rescate y búsqueda a la semana en los montes vascos

MARÍA JOSÉ
TOMÉ



Con 273 casos, el número de dispositivos aumentó un 42% en 2012 respecto al año anterior

BILBAO. La trágica muerte de la montañera vizcaína Iratxe Urrutia en la Sierra de Gredos durante la pasada Semana Santa representa, sin duda, la cara más amarga de una afición arraigada como pocas en Euskadi. Casi como una religión, miles de vascos consagran la mayor parte de su tiempo de ocio a hollar cumbres, hacer travesías o coger setas cuando es temporada. Sin llegar por norma general a las dramáticas consecuencias del accidente ocurrido en Ávila, SOS Deiak dedica una buena parte de sus esfuerzos a coordinar operaciones de rescate o búsqueda de montañeros accidentados o excursionistas perdidos en los montes vascos: en los últimos dos años han sido casi medio millar, lo que arroja una media de cinco a la semana.

Estos datos se reflejan en la respuesta escrita dada por la responsable del Departamento de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia, a una pregunta parlamentaria formulada por el representante del PP Carmelo Barrio sobre los rescates llevados a cabo por la Ertzaintza en los últimos dos años. Según los datos facilitados por la consejera al representante popular, SOS Deiak coordinó en 2012 nada me-

nos que 273 operaciones de salvamento (155) y búsqueda (118). Esta cifra representa un aumento del 42% respecto al año anterior, cuando se desplegaron 192 operativos: 115 rescates y 77 rastreos de personas desaparecidas. Destaca, sobre todo, el incremento en la cifra de búsquedas, que se ha disparado un 53% en apenas un año. Ante estos datos, Beltrán de Heredia apuesta por «mantener e incluso incrementar las informaciones que se están realizando sobre los riesgos que entraña tanto la montaña como las actividades denominadas de riesgo».

A tenor de esta progresión al alza no parece que la llamada 'tasa de rescates' haya surtido el efecto deseado. El canon fue implantado en enero de 2012 por el anterior Ejecutivo socialista con un triple objetivo: frenar el alto coste en accidentes y vidas humanas de la montaña, atajar las conductas imprudentes y fomentar la federación de los montañeros, además de servir de efecto disuasorio a las muchas llamadas innecesarias que se hacen al 112. Una iniciativa que, a pesar de contar con el rechazo de los mendizales -la Federación Vasca de Montaña la mantiene recurrida-, se aplica cada vez en más comuni-

dades: la última, Navarra, desde comienzos de año. A lo largo de estos casi 16 meses de andadura en Euskadi, la tasa se ha aplicado a cuatro escaladores y dos parapentistas, que se accidentaron mientras practicaban unas aficiones consideradas de riesgo en la normativa y, por lo tanto, susceptibles de generar la correspondiente factura por el res-

Hallan a un vecino de Portugalete muerto en el Gorbea

Un helicóptero de la Ertzaintza localizó ayer el cadáver de un vecino de Portugalete de 41 años que desapareció el domingo en el Gorbea. Fue su hermano quien dio ayer la voz de alarma a la Policía autónoma, a quienes explicó que había encontrado su coche estacionado en Saldropo, en Zeauri. La aeronave halló el cuerpo del montañero en un barranco en la zona del Paso de Atxuri hacia las campas de Arraba. El Servicio de patología Forense de la Audiencia en Bilbao realizará la autopsia.

cate. En total, el Gobierno vasco ha cobrado 7.231 euros por estas operaciones.

Sin seguro

Sólo en dos de los casos, los accidentados tendrán que asumir el coste de sus propios bolsillos al no estar federados y carecer de un seguro de accidentes que costee la operación de salvamento (como sucede con las pólizas federativas). Este es el caso de la última operación en la que el departamento ha aplicado la tasa, la primera de este año: el rescate del escalador que el pasado 23 de marzo se rompió el fémur al despeñarse por una pared de la cantera de Atxarte, en Urkio-la. El Departamento de Seguridad ha fijado el coste de aquel dispositivo de salvamento, en el que intervino el helicóptero de la Ertzaintza para trasladar al herido al hospital de Galdakao, en 1.283,90 euros, que deberá pagar íntegramente el aficionado, ya que ni estaba federado ni contaba con seguro particular. El otro caso ocurrió el pasado verano en las canteras de Azpeitia, aunque el rescate le salió 'barato' al escalador accidentado, que tuvo que pagar 263 euros.

Sobre el coste económico de las operaciones de rescate para las ar-

cas públicas, un extremo sobre el que el parlamentario del PP inquirió también a la consejera, la responsable de Seguridad se limita a referir el presupuesto de los servicios implicados en los rescates, como son Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología, la Unidad de Rescate de la Ertzaintza y la sección de Helicópteros. Según su respuesta, estas dotaciones gastaron el año pasado un presupuesto de 10 millones de euros, tres menos que en 2011.

Lo que sí detalla la consejera Beltrán de Heredia es la zona donde más rescates y búsquedas se desencadenan: el Macizo del Gorbea, un área seguida del Aizkorri, el Crestero del Anboto, la Sierra de Aralar y el Pagasarri. En total, estas cinco áreas montañosas sirven de escenario al 34% de todos los rescates. También destaca el alto número de operaciones en montes y áreas rurales cercanas a núcleos poblados, que representan el 41% de los rescates y casi la mitad de las búsquedas. En el caso de los rastreos, a las cumbres anteriores hay que añadir como zonas más 'peligrosas' los Montes de Triano o Aramotz en Bizkaia; Altzania, Salbada o Sierra de Cantabria en Álava o el Adarra en Gipuzkoa, entre otros.

LOS DATOS

465

fueron los rescates y búsquedas realizadas en las montañas vascas en los dos últimos años: 192 en 2011, y 273 en 2012.

2011

► Número de servicios solicitados a través de SOS Deiak:
Rescates: 115
Búsquedas: 77
► Unidades desplegadas (en algunos servicios intervino más de una):
Unidad Canina: 2 rescates y 17

búsquedas.

Grupo de Montaña: 35 rescates y 37 búsquedas.
Helicópteros: 33 rescates y 9 búsquedas.

2012

► Número de servicios:
Rescates: 155

Búsquedas: 118

► Unidades desplegadas (en algunos servicios intervino más de una):
Unidad Canina: 30 búsquedas.
Grupo de Montaña: 35 rescates y 47 búsquedas.
Helicópteros: 43 rescates y 10 búsquedas.

El Faro de la Seguridad

Punto de Encuentro para la Seguridad y la Prevención promovido por
Abando Seguridad

Martes, 23 de abril de 2013

SISTEMA DE LOCALIZACIÓN DE PERSONAS A TRAVÉS DE WHATSAPP

**“La localización a través de Whatsapp se ha convertido en
un sistema casi infalible”**



El Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco incorpora el sistema de localización de personas perdidas o en situación de riesgo mediante Whatsapp, gracias a la activación del GPS incorporado en los Smartphones. **Ana López**, Técnico en la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco, explica a El Faro de la Seguridad el funcionamiento y las ventajas de este nuevo sistema.

¿Qué aporta este nuevo sistema?

Uno de los mayores problemas en la búsqueda de rescate en la montaña se produce cuando una persona llama al 112 diciendo que se ha perdido o simplemente, por el motivo que sea, se encuentra desorientada. Lógicamente, esta persona no sabe donde se encuentra y, en estos casos, la localización a través de Whatsapp se ha convertido en un sistema casi infalible. Es decir, a través de este sistema se aprovecha la posibilidad que te da el poder tener la

posición exacta de esa persona a través del GPS incorporado que tiene este sistema de mensajería.

¿Cómo es su funcionamiento?



El Whatsapp tiene incorporado un sistema de GPS que aunque tiene un pequeño margen de error, es bastante exacto. Para ello, es necesario activar el GPS del Smartphone, ya que la posición que te va a dar el Whatsapp es la que le indica el GPS. Este sistema sólo tiene una pega que es la necesidad de tener 3G para poder utilizarlo. Sin embargo, lo realmente importante es saber cómo funciona. Sos Deiak, y todos los sistemas de coordinación que se tramitan a través de SOS Deiak, facilitan a la persona, en caso de que no sepan, ayuda para utilizar este sistema. No obstante, existe tal variedad de Smartphones en el mercado que aunque quisiéramos realizar un procedimiento para cada uno, es muy complicado estar al día. Lo ideal es que todo el que tenga un smartphone y que por ejemplo, sea montañero o simplemente vaya a viajar en coche, sepa cómo funciona su GPS y se sepa como funciona su Whatsapp para comunicar su posición. Que practique con ello antes.

¿Es más seguro, más exacto que dar la localización de viva voz?

Con muchos teléfonos móviles tienes la posibilidad de obtener las coordenadas a través del GPS normal del móvil, pero ni son fáciles de dictar por teléfono cuando estás en emergencia, ni son tan exactas como una fotografía. El Whatsapp lo que hace es fotografiar la posición que tu tienes en ese preciso lugar, dando con ellas las coordenadas exactas.

¿Es un sistema pionero?

La integración de este sistema de rescate se está llevando a cabo en varios lugares a la vez, por lo que no sabría decirte. De todos modos, ahora es el whatsapp porque es el más generalizado, pero en un futuro nadie dice que no podamos hacerlo a través de otros sistemas de mensajería. Nosotros, por nuestra parte, seguimos investigando nuevas vías para mejorar los rescates.



Este nuevo sistema es un paso más en la mejora del rescate, pero ¿queda todavía más pasos que realizar?

Nuestro objetivo es conseguir que cada vez la posibilidades de rescate, de búsqueda de las personas, sea mayor. Se consigue en gran número de ocasiones, sin embargo, hay veces que por una cosa o por otra se llega tarde. Este sistema es un complemento muy eficaz, pero sigue siendo un complemento. Y desde luego no vamos a utilizar el whatsapp para "te mando un mensaje, te digo donde estoy y ven a buscarme". El teléfono de emergencia sigue siendo el 112 y sólo a través de este número se activa un rescate.

Entonces, ¿cuáles el procedimiento actual en caso de emergencia?

El procedimiento es el siguiente: lo primero que hay que hacer siempre es llamar al teléfono de emergencia, es decir: el 112. A partir de ahí, el operador del centro de atención de emergencias te va a proporcionar un número de teléfono para que lo incluyas en tu agenda de contactos del whatsapp y establecer a través de este sistema la conversación. Hemos creado unos numero de telefono específicos que se facilitan a la persona que están en situación de emergencia, para evitar cualquier problema.

¿Habéis realizado ya algún rescate mediante el whatsapp?

Sí. La primera fué hace unos meses con el rescate de una persona en la zona de Orduña. Con la ayuda del whatsapp nos facilitó su posición y fue rescatado con helicóptero. Todo un éxito.

¿Alguna recomendación?

Lo ideal sería que todo el mundo practicara antes con este sistema para que conozca cómo hay que mandar un mensaje de posicionamiento. Es importante saber cómo se utiliza porque en caso de emergencia va a resultar muy útil. Si bien, no hay que olvidar que el 112 sigue siendo el teléfono de emergencia. Soy insistente, pero es muy importante.

No hay heridos

Controlado un escape químico en la empresa Tubacex

El escape de ácido fluorhídrico se ha producido en la planta que tiene la empresa en Amurrio

Noticias de Álava- Miércoles, 24 de Abril de 2013

Los equipos de emergencia han conseguido controlar un escape químico registrado esta pasada madrugada en la empresa Tubacex de Amurrio.

GASTEIZ. Ninguna persona ha resultado afectada por la fuga, que no ha llegado a afectar al exterior de la empresa, según ha informado el departamento vasco de Seguridad.

Sobre las 5,45 horas de la madrugada se ha registrado un pequeño escape de ácido fluorhídrico en un recinto abierto de la empresa Tubacex de Amurrio. SOS Deiak ha recibido aviso de la propia empresa y ha puesto en marcha las medidas previstas en el plan de emergencia previsto para estos casos.

Hasta el lugar se han desplazado bomberos y un técnico de Atención de Emergencias, mientras que la Ertzaintza ha establecido cortes en los accesos por carretera. A las 06,30 horas se ha dado el incidente por solucionado y se han levantado los puntos de corte.